

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea ordenantzen aldaketari

Udalbatzak, 2017ko maiatzaren 9ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantza, jarduera ekonomikoaren ordenantza eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza aldatzeari. Aldaketa horri behin-behineko onarpena ematen dion erabakia jendaurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.3. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aipatutako foru arauak 16.4 artikuluan eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, oso-osorik ematen da agitara aldaketaren testua:

Zerga ordenantza, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duena

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, ondasun higiezin gaineko zerga eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinen zati baita tarifa aplikagarria eta dirubilketa epea jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

1. Zerga egitatea da landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziak dituzte ondasun higiezin gaineko eskubide hauen titulartasuna:

a) Ondasun higiezin edo ondasun higiezin horiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesioa.

b) Azalera eskubide erreala.

c) Gozamen eskubide erreala.

d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko paragrafoan azaldutako zerga gaietako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezina ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honen ondorioetarako, landa ondasun higiezinak, hiri ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak izango dira zerga ordenantza honetako 4. artikuluan halakotzat definitzen direnak.

4. Ondasun higiezin bera udalerrri bat baino gehiagotan kokaturik baldin badago, adituko da, zerga honen ondorioetarako, udalerrri bakoitzean hartzen duen azaleraren proportzioan izango dela batekoa eta bestekoa.

4. artikulua

1. Katastrorako ez beste ezertarako, ondasun higiezinak da izaera bera eta bakarra duen lurzattia, baldin eta udalerrri baten barruan dago, poligono batek mugatzen badu eta poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen badu, bai eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak, higiezinak dela eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezinak dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko araubide berezian daudenak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eskusiboari eta iraunkorrari pro indiviso atxikiak badira. Katastro baloraziorako ez beste ezertarako, elementu komunak arauzko ezartzen den bezala eratzikiko zaizkie ondasun higiezinak.

b) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesio edo azalera eskubide baten espazio eremua.

2. Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

a) Hiri lurzorua. Hiri lurzoru da:

1) Hirigintza planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatu direnak, eta horien baliokideak.

2) Lur urbanizagarriak, edo lurralde antolamendurako eta hirigintzarako tresnen arabera urbanizatutako diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, betiere mugatutako sektore edo esparruetan badaude; eta mota horretako gainerako lurzoru guztiak, haien garapenerako zehaztapenak ezartzen dituen hirigintzako tresna onartzen den unetik aurrera.

3) Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiri eraikuntzak; hona xehatuta:

1) Eraikinak, direnak direla egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera, eraikitze moduagatik guztiz eramangarriak izan arren, eta hartzen duten lurra eraikuntzaren jabearena izan ez arren. Halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritzako eta industriako instalazioak, adibidez, dikeak, andelak eta zamatze tokiak.

2) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, esaterako lur-berdinketak, eta aterpe gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak, horrelakotzat hartzen direla azoka legez erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak, presak, urjauziak eta urtegiak (haien ohea barne), kiroltan jarduteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak.

3) Ondoko idatz zatian berariaz landakotzat kalifikatuta ez dauden eraikinak.

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak dauden lurzoruek ez dira hiri lurrak.

3. Zerga honen ondorioetarako, honako hauek landa ondasun higiezinak izango dira:

a) Aurreko idatz zatiko a) letrak xedatzen denaren arabera hiri lurztat jotzen ez diren lurrak.

b) Landa eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikin eta instalazioak, landa lurretan badaude eta ezinbestekoak badira nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenerarako.

Zerga honen ondorioetarako, ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereizezin izango baitira.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute (lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak). Multzoak, berez, horiek guztiak bateratzen dituzenez, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, eta horregatik ondasun higiezin bakartzat jotzen da katastroaren ondorioetarako.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat joko dira, aurreko paragrafoaren arabera, talde hauetakoak:

- a) Energia elektrikoa eta gasa ekoitzi eta petrolio birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.
- b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; ureztaketarako bakarrik erabiltzen direnak izan ezik.
- c) Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.
- d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

III. Salbuespenak

5. artikulua

1. Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Arabako Foru Aldundiarenak, udal erakundeenak eta toki erakundeenak, baldin eta defentsari, herritarren babesari edo hezkuntzako edo presondegiatako zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.

b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean atxikita badaude.

c) Errepideak, bideak eta lurreko gainerako bideak, baldin eta aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

d) Kuadrilla, udalerrri, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak, baldin eta zerbitzu edo erabilera publikokoak badira. Aurrean xedatzen dena ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoa administrazio kontzesio batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularra irabazteko xederik gabeko elkarte bada eta aipatutako entitatearekin lankidetzaz jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere, haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzaz jarduerak.

Halaber, salbuetsita daude komunitateak aprobetxatzen dituen mendiak eta gainerako ondasun higiezin guztiak, bai eta herri basoak ere.

e) Hazkunde geldoa duten espezieez populatutako mendiak, publikoak zein pribatuak.

Salbuespen hau hazkunde geldoko zuhaitzei dagokie, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren espezie izendegia kontuan hartuta, horien aprobetxamendu nagusia egurra bada, eta espezie horiek landatutako baso eremua bakarrik, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezieari berez dagokiona bada.

Orobat, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenean sartzen dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Foru Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoaren arabera birsortzen ari diren zuhaitziak dauden eremuak ere bai. Paragrafo honetan ezartzen den salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskaera aurkeztu eta ondoko zergalditik aurrera.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatuak eta Vatikanok sinatutako akordioan ezarritakoaren arabera.

g) Legez onartutako Eliza Katolikoaz beste elkarte konfesional batzuen ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioko 16. artikuluan ezarritakoaren ondorioz sinatutako lankidetzaz hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren ondasunak eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuenak.

i) Indarrean diren nazioarteko hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatzen zaien ondasun higiezinak, eta atzerriko gobernuenak, diplomaziako, kontsulatuko edota erakunde ofizialen ordezkarietarako erabiltzen dituztenak, elkarrekotasuna egonez gero.

j) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietan dauden eraikinak, haiek geltokitarako, biltokitarako edo trenbideok ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

k) Uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultur ondarearenak, 2.2.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuetsita daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultura ondarearenak, 2. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran xedatzen duenaren arabera. Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuei, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.

Orobat, salbuetsita daude Espainiako ondare historikoko ondasun higiezinak; hain zuzen ere, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako ondare historikoenak, finkatu zuen ondare historikoko ondasun higiezinak.

l) Erabat nahiz hein batean hezkuntza itunaren araubidean dauden ikastetxeek irakaskuntzarako erabiltzen dituzten ondasun higiezinak, hain zuzen ere irakaskuntza hitzarturako erabiltzen den azalera.

m) Zerga bilketaren kudeaketa eraginkortasunez eta ekonomiaz egiteko, salbuetsita egongo dira 200 eurotik beherako zerga oinarria duten hiri ondasun higiezinak. Halaber, eta arrazoi berengatik, landa ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasibo bakoitzak udalerrian dauzkan landa ondasun higiezin guztien zerga oinarria 200 euro baino gutxiago bada.

IV. Subjektu pasiboa

6. artikulua

1. Zergaren subjektu pasibo dira, zergadun gisa, zerga honen zerga egitatea dakarren kasuan kasuko eskubidearen titular diren pertsona fisikoak, juridikoak eta Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3. paragrafoan zehazten diren entitateak.

Ondasun higiezin baten gainean kontzesiodun bat baino gehiago egonez gero, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkaria.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena gorabehera, subjektu pasiboak ahalmena edukiko du zerga zama beste batzuei jasanarazteko Zuzenbide Erkideko arauari jarraituz. Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

V. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria da ondasun higiezinaren balioa.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren balioetatik katastro balioa hartuko da; katastro balioa ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziazat hartuta finkatuko da, eta ezin da izan merkatu balioa baino gehiago.

8. artikulua

1. Hiri ondasun higiezinaren katastro balioa lurzorua balioak eta eraikuntzenak osatuko dute.

2. Lurzorua balioa kalkulatzeko kontuan eduki behar dira eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak.

3. Eraikuntzen balioa kalkulatzeko hirigintzako eta eraikuntzako ezaugarriak hartuko dira kontuan, eta aintzat hartuko da, halaber, historikoak edo artistikoak diren, zertarako erabiltzen diren edo zein xede duten, beren kalitatea eta antzintasuna, eta eragina eduki dezakeen gainerako faktore guztiak.

9. artikulua

1. Landa lurreko ondasunen katastro balioa lurra balioak eta eraikuntzenak osatuko dute.

2. Landa lurra balioa kalkulatzeko haien benetako errentak edo lurra emankortasunaren arabera sor ditzakeenak eta dauden soro edo aprobetxamenduak kapitalizatuko dira, arau ezartzen den korritu tasa aplikatuz, beren katastro ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, aintzat hartu ahal izango dira ikerketaz lortutako datuak, zona edo eskualde bakoitzean egonik nekazaritza ezaugarri homogeneoak dituzten errentamendu edo apartzerien gainekoak.

Gainera, idatz zati honen ondorioetarako kontuan hartuko dira landa lurretan egindako hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak direnak, eta, behar den kasuetan, ekoizten hasi arte pasatutako urteen kopurua ere bai. Basogintzarako erabiltzen diren landa lurra balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira zuzen berrien adina, zuzentzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa.

Nolanahi ere, aprobetxamendua handiagoa izateko ohiko produkzio bitartekoak erabiltzea edo aplikatzea kontuan hartuko da; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustategiaren izaera edo udalerraren ezaugarriak direla-eta zaila bada jakitea zenbaterako diren lurra benetako errentak edo errenta potentzialak, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak barne), kontuan hartu ahal izango dira nekazaritzako faktore tekniko eta ekonomikoak eta eragiten dieten bestelako inguruabarrak.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluan 3. idatz zatian jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

10. artikulua

Aipatutako katastro balioak higiezinaren katastroetan bildutako datuetan oinarrituta finkatuko dira. Katastroko balio horiek berrikusi, aldarazi edo eguneratu ahal izango dira, kasu kasukoa, eta horretarako 13. artikuluan, 14. artikuluan edo 15 artikuluetan, hurrenez hurren, ezartzen dena aplikatu behar da.

11. artikulua

Landa eta hiri ondasun higiezinaren katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezinaren datu eta deskripzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

12. artikulua

1. Katastro balioak 8. eta 9. artikuluetan arautzen diren balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugatuko du alde zuzenetik, indarrean dauden hirigintzako xedapenekin bat etorritik. Dena dela, lurzoruaren izaeran aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezko izango mugaketa berri hori egitea.

3. Hala dagokionean, aurreko paragrafoan aipatu diren lurzoruaren mugatze lanak egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak dagozkien balorazio txostenak egingo ditu, bertan jasoz katastro balioak finkatzeko aplikatu behar diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak.

4. Hiri lurzoruaren mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta Arabako lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuko da.

5. Onartutako balio txostenak ALHAOn argitaratuko dira eta Udalaren ediktuen bidez jakinaraziko dira, txostenen ondoriozko katastro balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurreko urtean.

6. Txostenak argitaratu eta gero, haien ondoriozko katastro balioen subjektu pasibo guztiei jakinaraziko zaizkie, banan-banan edo subjektu pasiboa edo baimena daukan pertsona bulegora joanik, balioek eragina sortu behar duten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.

7. Hala finkatzen diren katastro balioak zortzi urterik behin berrikusi beharko dira.

13. artikulua

1. Katastro balioak Arabako Foru Aldundiak aldatuko ditu, bere kabuz edo udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastroko balioen eta udalerririk osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko balioen artean.

2. Aldaketa hori egiteko txosten berriak prestatu beharko dira, ezinbestean, eta prestatu ere aurreko artikuluan adierazi den bezala. Ez da egongo hiri lurrak berriz mugatu beharrik.

3. Balioespen txostenak prestatutakoan aurreko artikuluan arautzen diren irizpideei eta prozedurei ekingo zaie.

14. artikulua

Aipatutako katastro balioak eguneratu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren gaineko foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera.

VI. Zerga kuota

15. artikulua

1. Zerga honen kuota osoa kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

Kuota likidua kalkulatzeko lege ezarritako hobarrien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Karga tasa eranskinean agertzen dena izango da.

VII. Hobariak

16. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landatuta dauden edo basoa duten landa lurrek, baldin eta lurrok naturgune babestuetan badaude.

2. Urbanizatzeko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede osatzen duten ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik, eta ibilgetuan azaltzen ez badira.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa. Baldin eta interesatu batek bere lursailak urbanizatzeko obregatik hobaria aplikaturik lursail horietako higiezinaren sustapenari ekiten badio, hobaria bost zergalditan aplikatu ahal izango du.

3. Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobarirako eskubidea izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplika dezakete landa ondasunen kuotetan, ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak, kooperatiben zerga araubideari buruzkoak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

VIII. Sortzapena

17. artikulua

1. Zerga urtero sortzen da, urtarrilaren 1ean.

2. Zergaldia bat dator urte naturalarekin.

3. Zergapeko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, ekonomikoek eta juridikoek hurrengo zergaldian sortuko dituzte ondorioak, eta horretarako ez da ezinbestekoa izango bidez administrazio egintzak jakinaraztea.

18. artikulua

1. Zerga gai diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada (dena dela arrazoiak), eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen den bezala. Horiek horrela, notarioek argibideak eskatuko dituzte, eta agertzen direnei berariaz jakinaraziko diete, baimentzen dituzten agirietan, eskualdatzen den higiezinak zer zor dituen ordaintzeke ondasun higiezinaren gaineko zergan, zein epetan aurkeztu behar duten zerga horren aitortpena, ondasunek duten afektazioa zerga kuota ordaintzeko, eta, halaber, zein erantzukizun hartzen duten aitortpena aurkezten ez badute, aitortpena epez kanpo aurkezten badute, edo aitortpen faltsu, osatugabe edo zehaztugabea aurkezten badute.

2. Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren entitateetako partaideak edo titularkideak zerga kuotaren erantzule solidarioak izango dira, bakoitza bere partaidetzaren arabera, higiezinaren katastroan hala inskribatuta badaude. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko zaie.

IX. Zergaren kudeaketa

19. artikulua

Zerga kudeatzeko errolda egingo da urtero. Bertan ondasun higiezinaren, subjektu pasiboaren eta katastro balioen zentsuak egingo dira, landa lurrenak eta hiri lurrenak berezita. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.

20. artikulua

1. Subjektu pasiboek, zergaren peko ondasunak zein udalerritan dauden, hantxe aurkeztu beharko dute ondasun horiei buruzko aitortpena, erregelamenduz ezarritako epean:

a) Eraikuntza berrien kasuan, alta aitortpena egin beharko dute.

Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskurtazaileak alta aitortpena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskualdatzaileak, berriz, baja aitortpena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu: eskurtazailearen izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokalekua, eskualdaketa data eta kontzeptua.

Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren batek eragiten badu, dagokion epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta oinordekoak alta eta baja aitortpenak egin beharko ditu.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, kausa fisiko, ekonomiko zein juridikoak direla medio sortuak.

Idatz zati honetan zerrendatutako aitortpenak ez aurkeztea edo epe barruan ez egitea zerga arau haustea izango da.

21. artikulua

Katastro berrikuspenak direla eta, edo katastroko balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea dela eta, edo ikuskapenak edo altak eta komunikazioak direla eta higiezinaren katastroetan datuak sartu, kendu edo aldatzen badira, hori administrazio egintza dela joko da, eta zergaren erroldan aldaketa egin beharra ekarriko du. Erroldan aldaketaren bat egin ahal izateko, higiezinaren katastroetan dauden datuekin lotuta badago, aldaketa bera egin beharko da higiezinaren katastroetan, nahitaez eta aldez aurretik.

22. artikulua

1. Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian bai premiamendu aldian, udalari dagokio, baldin eta zergapeko ondasunak bere udalerrian badaude, horregatik eragotzi gabe aurrerago 3. zenbakian xedatutakoa.

2. Hain zuzen ere, Udalaren egitekoak dira altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea zerga honen inguruko gaiez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetan arautzen diren salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, udal eskudunak ematen duen ebazpena Foru Aldundiari helarazi beharko zaio.

3. Soilik Foru Aldundiari dagokio lurzorua mugaketak eta balio txostenak egin eta onartzea; mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea, eta katastroei eta zergaren erroldari dagozkien prestatze, berrikuste, artatze eta gainerako eginkizunak.

Udalak katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko dio Foru Aldundiari.

Era berean, Foru Aldundiari dagokio kobrantzako ordainagiriak egitea. Udalak uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 15. artikuluko 7. eta 9. idatz zatietan aipatzen dituen hobari pertsonaletako bat ezartzen badu, ordainagiriak berak prestatu beharko ditu. Era berean, Foru Aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskatzailetza.

23. artikulua

Balorazio txostenak onartzeko egintzen eta katastro balioen kontra zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera aurkezten diren errekursoak eta erreklamazioak

ebatziko dira zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229. artikulutik 246.era xedatutakoaren arabera, eta berraztertze errekurtsoak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiarena izango da. Horrelako errekurtso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

24. artikulua

1. Foru Aldundiak errolda egin eta udalari bidaliko dio.
2. Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 eguneko epean, zergadunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.
3. Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak dauzkaten udalek horien lehen-dakariei gutxienez bi egun lehenago jakinaraziko diete iragarkia noiz jarriko den jendaurrean, haiek auzokideei jakinarazteko, ohiko bideetatik.

25. artikulua

1. Jendurreko agerpenaldia amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren emaitzen ziurtagiria bidaliko zaio Foru Aldundiari, onar dezan.
2. Ziurtagiria onartu eta gero Arabako Foru Aldundiak bidezko ordainagiriak prestatuko ditu eta gero Udalari bidaliko dizkio, zerga bilketari ekin diezaion.

Xedapen gehigarria

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta estatu espainiarrak eta Vatikanokoak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, ondusun hauek salbuetsita egongo dira:

- a) Gurtzarako erabilitako tenplu eta kaperak, bai eta pastoraltzara zuzendutako lokalak edo horiei atxikitako eraikinak ere.
- b) Gotzain, kalonje eta arimen ardura duten apaizen egoitza.
- c) Bulegoetarako, kuria diozesiarrerako eta parrokia bulegoetarako erabilitako lokalak.
- d) Klero diozesiar eta erlijiosoaren prestakuntzara zuzendutako apaizgaitegiak, eta elizaren unibertsitateak ere bai, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.
- e) Nagusiki ordenetako etxe edo komentuak, erlijio kongregazioak eta bizitza sagaratuko institutuak.

Xedapen iragankorrak

Lehena.

42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, xedapen gehigarrietan ezarritako arauak udalari honetan aplikatuko dira, haiek eragiten dioten heinean.

Bigarrena.

Toki Ogasunak aldatzen dituen Foru Araua (12/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa) indarrean sartzean ondasun higiezinaren gaineko zergari buruz aitortuta zeuden zerga onurak ez dira galduko –Foru Arauan bertan zehazten dira zerga onura horiez gozatzeko kasuak–, eta, eskaera bidezkoak izan arren, ez da eskabiderik aurkeztu behar. Aipatutako zergan onartuta dauden zerga hobariak amaitu arte iraungo dute, nahiz eta zerga ordenantza honetan jaso ez. Horretatik kanpo geratuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 4. artikuluko k) idatz zatian xedatzen duena (12/2003 Foru Arauaren aurreko testua, hori indarrean jartzean indargabetu zena).

Azken xedapena

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, bertan agertzen den egunean onartu zen behin betiko, 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Tarifa	Karga tasa
Hiri ondasunak	ehuneko 0,28
Landa ondasunak	ehuneko 0,41
OHZ ezaugarri bereziak ehuneko	1,30
Dirubilketa aldia	urteko laugarren hiruhilekoa.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, eta uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak ezartzen dutenarekin bat etorritik, udal honek jarduera ekonomikoen gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera. Ordenantzaren eranskinean aplikatzen diren tarifak eta haiek biltzeko epealdia zehazten dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Zerga gaia da enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa jarduerak izango dira beste jarduera baten mendeko ez den abeltzaintza, meatzeak, industria, merkataritza eta zerbitzuak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiek ez dira zerga honen gai.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren ondorioetarako, abeltzaintza lokabetzat joko dira kasu hauetakoren batean dauden abereak:

a) Abeltzainak abereak larratzen diren lurrak ez erabiltzea nekazaritzarako ez basogintzarako.

b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.

Transhumantzian dabilen pertsona.

d) Gehienbat hazten ari den finkakoak ez diren pentsuez elikatzen den aberea.

4. artikulua

1. Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoarekin.

2. Kargatutako jardueren edukia zergaren tarifetan definituko da.

5. artikulua

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onar daitekeen edozein bitarteko erabil daiteke, batik bat Merkataritzako Kodeko 3. artikuluan ezartzen direnak.

6. artikulua

Jarduera hauek ez daude zergapean:

1. Nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza.
2. Enpresen aktibo finkokoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, eta saltzailearen berezko eta berebiziko erabilerazko ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berberetan erabili bazituen.
3. Saltzea lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuak.
4. Erakustea establezimenduak dekoratu edo apaintzeko baino ez diren gaiak. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.
5. Txikizkako salmentan, burutzea egintza bakar bat eta eragiketa bakan bat.

III. Salbuespenak**7. artikulua**

1. Zerga honetatik salbuetsita daude:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, bai eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Jarduera batean hasten diren subjektu pasiboak, hasi eta lehenengo bi zergaldietan.

Honen ondorioetarako, salbuespena ez da aplikatzen lehen beste titulartasun batekin egin den jarduera bati ekiten bazaio, eta halakotzat hartuko diraATEGITEAK, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.

c) Eragiketetan 2.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 2.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea letra honetan bolumenaren gainean zehazten den baldintza betetzen ez duten enpresen partaidetza (ehuneko 25 baino gehiago) zuzen edo zeharkakorik. Salbuespen dira uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, zehazten dituen arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, baldin eta partaidetza haien sozietate xedea betetzearen ondorio zuzena bada.

Idatz zati honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

Lehenengo araua. Eragiketen zenbatekoa zehaztuko da uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 2. artikulua 7. idatz zatian aurreikusitakoaren arabera.

Bigarren araua. Sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauze izango da: aitorpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergen foru arau orokorrak 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena izango da zerga honengatiko zorraren sortzapen urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urtea baino laburragoa bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

Hirugarren araua. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira. Irizpide hori aplikatuko da, era berean, pertsona fisiko bat, bere kabuz edota beste pertsona fisiko batzuekin batera, beste entitate batzuekin harremanetan dagoenean (zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasunez, odol ahaidetasunez edo kideetasunez, bigarren mailara arte), Merkataritza Kodeko 42. artikuluan zehazten diren kasuetako batean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko kasuak direla urteko kontu bateratuak formulatzeko arauen, hain zuzen ere abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onetsitakoan, lehenengo kapituluko lehenengo atalean jasotakoak,.

Laugarren araua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokkeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte segurantzaren, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten entitateak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuak.

e) Ikerketa organismo publikoak; irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, baldin Estatua-
ren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundearen funtsen kargura ordaintzen badira osoki, edo ongintzako edo erabilera publikoko fundazioen kargura; era berean, irabazteko xederik gabe hezkuntza itunaren araubide pean dauden irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, nahiz eta ikasleei liburuak eta idazmahaiako gaiak eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespenez, zentroan bertan saldu irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, betiere salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua sostengatzeko ez bestetarako baliatzen bada.

Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irabazteko xederik gabeak, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko gauzatzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

h) Nazioarteko ituna edo hitzarmena dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak.

2. Aurreko paragrafoa a), d), g) eta h) idatz zatietan aipatzen diren subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu zergaren matrikularen alta aitortpena.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du aurreko 1. paragrafoa c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatzen den kasuetako zeinetan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari komunikazioa bidaltzeko, hain zuzen ere letra horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazten duen komunikazioa.

Horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du komunikazio horretan zer azaldu behar den, noiz bidali behar den nola aurkeztu behar den, eta zer kasutan aurkeztu behar den bide telematikoz.

4. Irabazteko xederik gabeko entitateak, uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, ezartzen duenarekin bat etorri eta bertako baldintzak betetz gero.

Aurreko 1. paragrafoko c) idatz zatian zehazten den salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, zerga ordenantza honetako 11. artikuluko 2. paragrafoko hirugarren puntuari ezartzen dena aplikatuko da.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoko e) eta f) idatz zatietan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren entitateak, baldin eta zerga gaia sortzen duten jardueretako bat egiten badute Arabako Lurralde Historikoan.

9. artikulua

Zerga kuota izango da ateratzen dena aplikatuz indarrean dauden zergaren tarifak, uztailearen 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak, eta udalak erabakitako koefizienteak, indizea eta hobariak, ordenantza honen eranskinean arautuak.

V. Zergaldia eta sortzapena

10. artikulua

1. 1. Zergaldia urte naturala da, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu arteko izango da. Horrek ez du eragotziko artikuluko honen 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2. Zerga sortzen da zergaldiaren lehenengo egunean, eta kuota ezingo dira murriztu, salbu eta, alta aitortpenen kasuan, jardueraren hasiera eguna bat ez datorrenean urte naturalaren hasierarekin; horrelakoetan, kuota kalkulatuak dira jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra bitarteko egun kopuruaren arabera.

3. Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia izango da urtarrilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera arte. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarrilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatuak da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren hilen kopurua kalkulatzeko, hil osotzat zenbatuko da baja aitortpena aurkezten den hila.

Kasu honetan ez da aplikatuko zenbaki honetan xedatzen dena: jarduera hasi den egunetik baja aitortpena egin arte 12 hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31 izango da.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuota jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

VI. Kudeaketa

11. artikulua

1. Zerga kudeatzen da bere matrikularen bidez. Matrikula hori urtero eratuko da, eta bertan sartuko dira jarduera ekonomikoan, subjektu pasiboan, zerga zorren, eta, hala badagokio, foru errekaruen zerrendak. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2. Subjektu pasiboak behartuta daude dagozkien alta aitorten guztiak aurkeztera, eta zerga ordenantza honetako 11.1 artikularen arabera matrikulan sartzeko behar diren elementu guztiak adieraztera, arauz ezartzen den epean. Ondoren, administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta gero hark dagokion diru zenbatekoa sartu beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epealdietan eta zehazten den bezala. Hori dela eta, jakinarazpenetan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz zatian ezartzen den salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, eragiketen bolumenaren aldakuntzaren ondorio zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioa aldatzen bada, edo ordenantza honen eranskinean zehaztutako haztapen koefizientearen aplikaziorako kontuan eduki beharreko tartea, subjektu pasiboak bolumen aldaketaren berri eman beharko du.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zehaztuko du zer kasutan eman behar den horien berri, eta finkatuko du zer adierazi behar den eta zer epetan eta nola aurkeztu behar den. Horrez gainera, telematikoki zein kasutan aurkeztu behar den ere ezarriko du.

3. Administrazio egintzatzat jo eta errolda aldaketaren eragile izango dira erroldetan datuak sartu, kendu edo aldatzea, baldin eta zerga ikuskatzeen edo alta emate eta komunikazio formalizatuen ondorio badira. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko daturen bat ukitzen badu, lehenbizi ildo bereko aldaketa egin beharko da datu horretan, nahitaez.

4. Zerga hau autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango da, arauz ezartzen diren baldintzetan.

12. artikulua

1. Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidean.

2. Bere eskumeneko gaietan, Udalarari dagokio matrikula jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zergadunari laguntza eta informazioa ematea zerga honekin lotutako gaietan.

3. Salbuespenak emateko eta ukatzeko ezinbestekoa da hartutako ebazpena Foru Aldundiari jakinaraztea.

13. artikulua. Kudeaketa

Jarduerak kalifikatzeko eta kuota ezartzeko egintzen aurkako errekurtsioei eta erreklamazioei zergen foru arau orokorreko 229 - 246 bitarteko artikuluetan xedatzen dena aplikatuko zaie. Berraztertzeo errekurtsioak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazpena geldiaraziko.

Aurrerantzean ez dute edukirik izango ez xedapen gehigarriak ez xedapen iragankorrak.

Ordenantzaren eranskinak testu hau izango du:

Eranskina

Lehenengo erregela. Zerga kuota (udalaren gutxienekoa) kalkulatzeko zerga gai diren jardueren zergaren tarifak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 573/1991 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartu eta indarrean daudenak, aplikatuko zaizkie.

Bigarren erregela. Haztapen koefizientea eragiketa bolumenaren arabera zehaztutako da. Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udalerrri honetan

egindako jarduera guztiengatik zergaren tarifako kuota txikienak ehuneko 1eko koefiziente bakarra aplikatuz handituko dira.

Hirugarren erregela. Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honela zehazten da udalerrri honetan aplika daitekeen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren indize eskala:

Udalerriko bide publiko guztiak zerga kategoria berekoak dira.

Laugarren erregela. Dirubilketa aldia: urteko bigarren seihilekoa.

14. artikulua

1. Foru Aldundiak egingo ditu udalen matrikulak, eta bakoitzari berea bidaliko dio.

2. Foru aldundiak egindako matrikula jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, eragindako zergadunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

15. artikulua

Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren emaitzen ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan.

Xedapen gehigarria

Ordenantza honetako 7. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz zatian xedatutako salbuespena soilik izango da aplikatzekoa jarduera 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten duten subjektu pasiboiei.

Jarduera 2003ko zergaldian hasi bazuten, 2004an aplikatzeko haztapan koefizientea izango da txikiena, uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauko 9. artikuluko 1. paragrafoko taulan aurreikusitakoaren artean.

Xedapen iragankorra

Foru arau hau indarrean sartzean, bertan xedatutakoaren arabera zerga ordaintzetik salbuetsita ez dauden zenbait subjektu pasibo ari badira aplikatzen kuotako hobaria, lehen uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaz onartutako tarifen bigarren atalaren lehenengo ohar komunean araututa zegoen jarduera-hasteagatik, subjektu pasibo horiek hobari hori aplikatzen jarraituko dute ohar komun horretan araututako baldintzetan, harik eta hobaria aplikatzeko dagokien aldia bukatu arte.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau, bere eranskinarekin batera, adierazten den egunean onartu zen behin betiko, eta ALHAOn argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta hala jarraituko du harik eta, espresuki, aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Lehenengo erregela. Zerga kuota (udalaren gutxienekoa) izango da ateratzen dena zerga gaian sartutako jarduerari aplikatuz zergaren tarifak, uztailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 573/1991 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartu eta indarrean daudenak; hala ere, kon-tuan izan beharko da martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauak, toki ogasunak aldatzen dituenak, bigarren xedapen gehigarrian eta xedapen indargabetzailean ezartzen duena.

Bigarren erregela. Udalerrri honetan egindako zernahi jardueretarako indizea 1 izango da.

Hirugarren erregela. Dirubilketa aldia: urteko bigarren seihilekoa.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu, zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoarekin bat etorritz, ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zeinaren parte baita aplikatzeko tarifen taula daukan eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Zerga egitatea dira:

1. Bide publikoan ibiltzeko egokiak diren eta trakzio mekanikoko ibilgailu direnen titular izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2. Behar den erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailuak zirkulaziorako egokitzat joko dira bazarik eman ezean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko egokiak joko dira.

3. Ez daude zergaren pean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuak tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg-arterainoko zama erabilgarria dutenak.

III. Salbuespenak eta hobariak

4. artikulua

1. Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsara edo herritarren babesera atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuaren funtzionario kreditatuenak, kasuan kasuko lurraldeko herritarrek badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako ibilgailuen araudi orokorraren II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude. "350 kg baino gutxiagoko tara duen ibilgailua, eraikitze moduagatik lurralde lauan 45 km/h abiadura ezin badu gainditu

eta disfunzio edo ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko berariaz eraiki edo proiektatu bada (ez da nahikoa moldatzearekin). Gainerako ezaugarri teknikoei dagokienez, hiru gurpileko ziklomotorrekin parekatuko da”.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten, ezin duen izenean matrikulatuta dauden eta euren bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai elbarriek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Orobat, zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezindutzat:

a) Ehuneko 33 eta ehuneko 65 bitarteko minusbaliotasun gradua aitortua duten pertsonak, mugitzeko gaitasuna murriztuta dutenak. Halakotzat joko dira Ezintasun gradua aitortu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedurari buruzko Errege Dekretuak (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) III. Eranskinean jasotzen duen baremoko a, b edo c letretan adierazitako egoeretako batean daudenak edo baremo horretako d, e, f, g edo h letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak.

b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun gradua duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letraz kalifikatutako mugikortasun urriko egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalen muga, baldin eta ibilgailua gupil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako edo hari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badauzkate, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdiatoi eta makinak.

2. Ordenantza honen 1. paragrafoko e) eta g) idatz zatietan aipatzen diren salbuespenek arau izaera dute, administrazio ekintza bidez emango dira eta udal organo eskudunak ebatziko ditu. Salbuespen horiek eskatu ondorengo zergalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Udalari haiek onartzeko eskatzen dioten interesdunek ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onurarako arrazoiak adieraziko dizkiote, eta salbuespenaren udal ziurtagiria Trafiko Buruzagitzan aurkeztuko dute matrikula izapidetzean edo udalerrian ibilgailuari alta ematean. Udalak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1. paragrafoko e) idatz zatiko bigarren lerroaldean xedatutako salbuespena dela eta, hauek aurkeztuko ditu interesdunak:

– Ezgaitasunaren ziurtagiria eta, izanez gero, organo eskudunak emandako mugikortasun urriaren ziurtagiria.

– Zinpeko aitortua, ibilgailu hori desgaituak baino ez duela erabiliko aitortuz.

– Hala dagokionean, ibilgailua bere ezintasunera moldatu dela egiaztatzea, fitxa teknikoan aipamena eginda edo moldaketa egin duen lantegiaren ziurtagiri bidez.

3. Zerga kuotaren ehuneko 50eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek edo, gutxienez, duela 25 urte fabrikatu zirenek. Data hori ezin bada jakin, lehen aldiz matrikulatu zen eguna hartuko da kontuan edo, bestela, mota edo aldaera hori egiteari utzi zitzaion eguna.

Aurreko paragrafoan aipatutako hobariak arau izaera du, administrazio ekintza bidez emango da eta udal organo eskudunak ebatziko du. Hobari horrek eskatu ondorengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

Udalari haiek onartzeko eskatzen dioten interesdunek ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onurarako arrazoiak adieraziko dizkiote, bai eta alegatutakoa ziurtatzen duten agiriak ere.

IV. Subjektu pasiboak

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua haien izenean badago.

V. Kuota

6. artikulua

1. Eranskinean jasota dagoen tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela plazak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobus gisa kargatuko da.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagokion zerga ezarriko zaio.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoin kasuan, duten edukiera dela-eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitzen joko dira industria ordezkariak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden unetik.

e) Makina autopropultsatuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenek, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, tarifen D) idatz zatian azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

Autokarabanez turismoen zerga ordainduko dute.

VI. Zergaldia eta sortzapena

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen denean, zergaren kuota eskuraketa egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuraketa egunetik baja eman arteko aldiaren proportziozkoa, kasuan kasukoa.

4. Ibilgailu bati baja ematen zaionean, zergaren kuota urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskatzea eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

11. artikulua

Zerga ordainduko da ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik, kasu horietan artikulua horietan xedatutakoa aplikatuko baita.

12. artikulua

Matrikulazioa berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun balioduneko epean:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NANA edo IFZ.

13. artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, eskatzen dutenek, aurretik kreditatu beharko dute zerga ordainduta dagoela.

2. Ibilgailuen titularrek ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean Trafiko Buruzagitzan, baldin zergaren ondorioetarako sailkapena aldatu bada, edota ibilgailua eskualdatzen dutenean, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen dutenean edo ibilgailuari baja ematen diotenean, alde aurretik Trafiko Buruzagitzari frogatu beharko diote zerga kobratzean aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela. Hala ere, kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, alde aurretik zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

Xedapen iragankorra

Toki ogasunak aldatzeko Foru Araua (12/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa) indarrean sartu aurretik eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren Foru Arauaren 2.1.d) artikuluaurreko idazketaren arabera (44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa) salbuesiak ziren ibilgailuek ez badituzte betetzen foru arau horrek arau horri emandako idazkera berriaren arabera salbuespenerako behar diren baldintzak, ez dute galduko arau horren aurreko idazkeraren arabera ezarrita zegoen salbuespenerako eskubidea noiz ere ibilgailuak ez dituen galdu salbuespen horretarako arau horretan eskatzen ziren ezaugarriak.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta hala iraungo dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA

Tarifak

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	KUOTA/EUROTAN.
A) Turismoak:	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	19,42
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	52,43
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	110,67
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	137,84
20 zaldi fiskaletik aurrera	172,31
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiago	128,17
21 eta 50 plaza bitartean	182,50
50 plaza baino gehiago	228,17
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarria 1.000 kilogramo baino gutxiago	65,03
Zama erabilgarria 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	128,17
Zama erabilgarria 2.999 eta 9.999 kilogramo bitartean	182,50
Zama erabilgarria 9.999 kilogramo baino gehiago	228,14
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	27,18
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	42,70
25 zaldi fiskal baino gehiago	128,17
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak:	
Zama erabilgarria 750 eta 1.000 kilogramo bitartean	27,18
Zama erabilgarria 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	42,70
Zama erabilgarria 2.999 kilogramo baino gehiago	128,17
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklotorrak	8,31
125 cm ³ baino gutxiagoko motozikletak	8,31
126 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	11,65
251 eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	23,30
501 eta 1000 cm ³ bitarteko motozikletak	46,61
1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak	93,20

Santukurutze Kanpezu, 2017ko uztailaren 21a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO